



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

**LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN (LEK) TXOSTENA,  
"EAE-KO ADMINISTRAZIOAK ETA HONEN ERAKUNDE  
AUTONOMOEK PREZIO PUBLIKOEN BIDEZ ORDAINDU  
DITZAKETEN ZERBITZU ETA JARDUNAK ZEHAZTEN DITUEN  
DEKRETU-PROIEKTUARI" BURUZKOA.**

**8/2013 esp.**

**Aurkibidea**

I.- AURREKARIAK ETA TXOSTENAREN XEDEA.....	1
II.- OINARRI JURIDIKOA ETA LEK-EN ESKU-HARTZEAREN IRISMENA.....	2
III.- DEKRETU-PROIEKTUAREN ZIRRIBORROAREN ARAUGINTZA-XEDEA.....	3
IV.- GOGOETA JURIDIKOAK ERAGINPEKO ERAKUNDE GAREN HEINEAN.....	4
V.- GOGOETA JURIDIKOAK LEHIA DEFENDATZEKO ARLOEI DAGOKIENEZ.....	5
VI. ONDORIOA.....	5

**Lehiaren Euskal Kontseilua**

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea.

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea.

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea.

Ibon Álvarez Casado jauna, idazkaria.

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), lehen aipatutako osaera duela, honako txosten hau onartu du.

**I.- AURREKARIAK ETA TXOSTENAREN XEDEA.**

1. 2013ko ekainaren 3an, Ogasun eta Finantza Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren ofizio bat sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistroan, eta horrekin batera igorri zen *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketten zerbitzu eta jardunak zehazten dituen dekretuaren* proiektua. Izan ere, agintaritza honen eskumenen artean sartzen diren gaietan eragin dezake proiektuak, eta, beraz, 20 egun baliouduneko epea eman zitzaion agintaritza honi egoki irizten duguna adierazteko.



2. Egun indarrean dagoen 249/2010 Dekretua ordeztuko luke dekretu-proiektuak (249/2010 Dekretua, irailaren 28koa, EAEko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoen bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen), bai eta 1/2007 Legegintzako Dekretua garatu ere (1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena). Hain zuzen ere, honako hau xedatzen du azken arau horren 31. artikulua: *Prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituzte, elkarrekin, ogasunaren arloan eskumena duen sailak eta kasuan kasuko sailak, hots, zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak.*

3. LEK honek, txosten honen bidez, egoki irizten dituen oharrak emango ditu Lehiaren Euskal Agintaritzari dagozkion gaien inguruan, eta aipatutako dekretu-proiektua lehiakortasun-arauekin bateragarri den edo ez aztertuko du.

## **II.- OINARRI JURIDIKOA ETA LEK-EN ESKU-HARTZEAREN IRISMENA.**

4. Oro har, esan behar da 15/2007 Legeak, uztailaren 3koak, *Lehia Defendatzekoak*, Lehiaren Batzorde Nazionalaren esku uzten dituela aholkularitza-eskumenak. Zehazki, honako hau xedatzen du: "Lehiaren Batzorde Nazionala organo aholkuemailea izango da lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan (...). Kasu guztietan, Lehiaren Batzorde Nazionalak ondorengoei buruzko irizpenak emango ditu: a) Lehiari eragiten dioten arau-proiektu eta arau-proposamenei buruz (...)"

5. Bere aldetik, 1/2010 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, haren 3. artikulua bosgarren paragrafoan adierazten du lehiari eragiten dioten arau-proiektuei buruzko irizpenak emango dituela Lehiaren Euskal Agintaritzak, baina ez direla lotesleak izango.

6. Era berean, aipatutako 1/2012 Lege horren 1. artikulua dio Administrazioeko erakunde autonomo gisa sortu dela Lehiaren Euskal Agintaritzza, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren



ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikia; hortaz, aztertzen ari garen dekretu-proiektuak zuzenean eragiten dio LEAri.

7. Araudi horrekin bat, dekretu-proiektu hori aztertzen du LEKek, lehia defendatzeko araudiaren ikuspegitik, eta horren eraginpean dagoen erakundearen ikuspegitik.

### **III.- DEKRETU-PROIEKTUAREN ZIRRIBORROAREN ARAUGINTZA-XEDEA.**

7. 1/2007 Legegintzako Dekretuaren, irailaren 11koaren, EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzeko denaren, xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Administrazio Instituzionalak eskatzen dituzten tasak eta prezio publikoak arautzea.

8. 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 30. artikuluan definitzen da prezioa: “Prezio publikotzat joko dira zuzenbide publikopeko jardueren edo zerbitzuen trukean ematen diren diru-sariak, baldin eta lege honen 4. artikulua araberata tasa ez badira”.

9. Honako hau xedatzen du lege beraren 31. artikulua: “Prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituzte, elkarrekin, ogasunaren arloan eskumena duen sailak eta kasuan kasuko sailak, hots, zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak”.

10. 20/2012 Dekretua, abenduaren 15ekoa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen, onartzearekin bat, sailak eta eskumenak aldatu ziren, eta, ondorioz, prezio publikoen bidez ordaindu daitezkeen gaiak zehazten dituen dekretua aldatu beharra dago; horregatik aurkezten da araudia aldatzeko proposamen hau.

11. Egun indarrean dagoen 249/2010 Dekretua ordeztuko luke dekretu-proiektuak (249/2010 Dekretua, irailaren 28koa, EAEko Administrazioak eta honen erakunde autonomoek prezio publikoen



bidez ordaindu ditzaketen zerbitzu eta jardunak zehazten dituen), bai eta 1/2007 Legegintzako Dekretua garatu ere (1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, EAeko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen testu bategina onartzeko dena).

**12.** Egokia iruditzen zaigu prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak banatzeko ohiko egitura aldatzea, eta sailen eta erakunde autonomoen izen zehatzetan oinarrituta antolatu ordezkumen-arloen arabera antolatzea; horrela, araua denbora luzeagoz mantendu ahal izango da indarrean.

**13.** Gainera, berrikuntza gisa, erakunde autonomo guztientzat orokortu dira mintegien, kongresuen, jardunaldien eta ikastaroen matrikulen prezio publikoak, bai eta argitalpenak paperean edo euskarri elektronikoan saltzeko eta igortzeko prezio publikoak ere. Horri dagokionez, guztiz aplikagarri zaio Lehiaren Euskal Agintaritza honi, ekonomia-politikaren eta lehiaren defentsaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako erakunde autonomoa delako; beraz, dagokion agindua onartu beharko da.

#### **IV.- GOGOETA JURIDIKOAK ERAGINPEKO ERAKUNDE GAREN HEINEAN.**

**14.** Guztiz egokia iruditzen zaigu dekretu-proiektuak egiten duen aldaketa, hau da, prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak eskumen-arloen arabera sailkatzea, sailen eta erakunde autonomoen izenen arabera egin beharrean lehen egiten zen moduan. Horrela, dekretua denbora luzeagoz mantendu ahal izango da indarrean, eta etorkizunean prezio publikoen kudeaketaren inguruan sor litezkeen oztopoak ekidingo ditugu.

**15.** Erakunde autonomoen —horien artean aurkitzen da LEA hau— zerbitzu eta jarduera komunei dagokienez, gure ustez egokia da araua, behar adinako estaldura eskaintzen baitie LEAren egungo zerbitzuei eta jarduerari eta etorkizun hurbilerako aurreikusitakoei.



## **V.- GOGOETA JURIDIKOAK LEHIA DEFENDATZEKO ARLOEI DAGOKIENEZ.**

**16.** Proposatutako arau-aldaketarekin ez da lehia askea mugatzen duen neurririk edo jarduerarik gauzatzen.

## **VI. ONDORIOA**

Positiboki balioesten ditugu dekretu-proiektuan egindako aldaketak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arauak hobeki kudeatuko direlako, eta, beste alde batetik, aldaketa horiek ez dutelako eragiten lehia askean.

Bilbon, 2013ko ekainaren 24an.

**PRESIDENTEA  
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA  
IBON ALVAREZ CASADO**

**KONTSEILUKIDEA  
NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KONTSEILUKIDEA  
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**